

Ebazpena: A001/2026

Espedientea: E137/2023

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 28a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidentea eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek; hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren xedea baita zehaztea nork daukan eskumena ordainarazteko HAFESA ENERGÍA SLren (aurrerantzean, HAFESA ENERGÍA) (IFZ: X00000001) 2020ko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ). Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetu zen, 137/2023 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- 2024ko martxoaren 19an, Arbitraje Batzorde honek 26/2024 Ebazpena eman zuen eta honako hau erabaki: "Deklaratzea Arbitraje Batzorde honek ekainaren 21eko 11/2017 Ebazpenaren (18/2012 eta 27/2014 gatazken espediente metatuan emana), azaroaren 15eko 13/2017 Ebazpenaren (19/2012 gatazkan emana) eta 2022ko uztailaren 28ko 35/2022 Ebazpenaren (34/2015 gatazkan emana) ondorioak gatazka honetara zabaltzen direla, eta, ondorioz, deklaratzeko HAFESA ENERGÍA 2020ko ekitaldian Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutako gordailu fiskaletan egindako ondasun-emateak, bai gordailu horien barruan, bai

horien irteeran, dagozkien gordailu fiskaletan kokatutzat jotzen direla, eta, beraz, 2020ko ekitaldian, BFari dagokiola entrega horien eragiketa-bolumenaren proportzioa”.

2.- DOJZEN-en (Dokumentazio Judizialeko Zentroan), Auzitegi Gorenaren 1636/2025 epaia argitaratu zen (ECLI:ES:TS:2025:6079), zeinaren gaia baita Arbitraje Batzordeak 137/2023 gatazkan emandako 26/2024 Ebazpena. Epaia horretan, agindu zen ebazpena atzera botatzea, eta espedientea prozedura arruntean izapidetzea.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Ekonomia Itunaren 67. artikulua araberak, Arbitraje Batzordearen ebazpenak errekurritu ahal izango direla Auzitegi Gorenean.

2.- Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legeak 103. artikuluan adierazten duenez, epaiak bete beharko dira, haiek kontsignatutako moduan eta baldintzetan.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea egokia dela 137/2023 berriro ere izapidetzea, prozedura arruntean, gatazkaren planteamendu-idazkiari eutsita eta hasierako alegazioak aurkezteko izapidea eginez.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta HAFESA ENERGÍA entitateari.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.